

## Bideo lehiaketa. Kirol Zerbitzuaren lehiaketa berria

2013/06/20

Zuetariko asko jada oportretan nora joan eta zer egin pentsatzen arituko zarete, edo erabakita izango duzue. Plan horien artean, ziurrenik, jarduera fisikoak edo kirolak izango du tartetxo bat. Uda honetan biziko dituzuen momentu eder horiek guztiokin partekatzea gustatuko litzaziguke eta horretarako **LEHENBIZIKO ALDIZ ANTOLATU DUGUN BIDEO LEHIAKETAN PARTE HARTZERA GONBIDATU NAHI ZAITUZTEGU!**

Parte hartzea oso erraza da. **GAIA "UDA AKTIBOA"** izango da eta helburua oportretan egin edo ikusiko dituzuen jardueren bideo labur bat muntatzea izango da. Bideoak 1-3 minutu inguru izan behar du eta urriaren 20a baino lehenago Kirol Zerbitzuan aurkeztu besterik ez da egin behar.

Modu hoenetan, uda honetako bizipenak norberarentzako grabatzeaz aparte guztiokin partekatzeko aukera izango duzue eta gainera 200€ saria eskuratu dezakezu.

Kirol Zerbitzuaren webgunean aurkituko duzu **beharrezko informazio guztia**.

<http://www.mondragon.edu/eu/kirol-zerbitzua/zer-egin-dezakegu/ekintza-osagarriak/kirol-bideo-lehiaketa>

